

# LIBURUTEGIEN Euskal Sistema

2016. urterako, Liburutegi Zerbitzuaren lehentasunezko helburua da Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarea (EIPS) sendotzea. Horretarako, Liburutegi Zerbitzua eta EJIJ elkarlanean ari dira informatika-arloko profesionalekin, baita Bilboko, Donostiako eta Santurtziko liburutegietako eta Azkuna Zentroko Mediatekako profesionalekin ere. Jakin badakigu prozesu konplexua dela eta aplikazio informatikoak ez ezik, liburutegietako profesionalak eta bazkideak ere hartzen dituela eraginpean. Horregatik, hainbat lan egin behar dira prozesu teknikoaren kalitatea bermatzeko, profesionalen prestakuntza ere eman behar zaie, eta zentro horietako liburutegi-zerbitzuen erabiltzaileei horren guztiaren berri eman.

Hiru udalerrri horietako katalogo bibliografikoak eta erabiltzaileen fitxategiak txertatuta, Euskadiko udal-liburutegi guztietan txartel bakarra erabiltzeko aukera bermatzen ari gara, eta horrek hobekuntza ekarriko die herritarrei, Sareko liburutegi-zerbitzu guztiak txartel bakarrekin izango baitituzte eskura, eta horretaz gain, tituluen eskaintza handiagoa izango dute eta informazio bibliografikoa paperean nahiz formatu digitalean izango dute eskuragarri.

Aurtengo beste helburuetako bat mailegu digitala ezagutaraztea da, eta horretarako, irakurketa digitala sustatuko dugu. Kontuan izanik gero eta herritar gehiagok internet bidez egiten dituela administrazioarekiko izapideak, esan gabe doa liburutegiek ezin dutela atzera geratu zerbitzuen eraketan; beraz, Interneten egon beharra dute, eta mailegu digitala eta online irakurketa eskaini behar dituzte.

eLiburutegia plataformari esker, Liburutegi Zerbitzutik zerbitzu berriak antola daitezke dela Sareko liburutegi publikoei zuzenduta, dela herritarrei zuzenduta.

Eta zerbitzu digitalen eta pantailetan irakurtzearen ildo horri jarraiki, ez dugu ahantzi behar Sareko liburutegien tokiko funtsak digitalizatu egin behar direla. Zerbitzu horrei esker, urtetik urtera EAEko udalerrietako gero eta tokiko bilduma gehiago daude eskuragarri Liburuklik: euskal liburutegi digitalaren bidez; hartara, euskal kultura eta hizkuntza aberasteaz gain, euskal kultura-ondarea zaintzeko eta zabaltzeko lanetan laguntzen ari gara.

**Imanol Agote Alberro**  
Kultura Ondarearen zuzendaria

## eLiburutegiaren analisia 2015ean



**eLiburutegia**

eLiburutegia zerbitzuaren gako nagusiak honakoak dira: katalogoaren aniztasuna, zerbitzuaren jasagarritasuna bermatzen duen lizentzien erosketaren ereduak, liburutegietako pertsonalaren partaidetza aktiboa eta berezko plataforma teknologikoaren kudeaketa.

2015ean zerbitzuko plataforma berri diseinatu da pantailetako irakurketaren erronka berriei aurre egiteko eta interfaze atseginagoa eta intuitiboagoa eskaintzeko. Elkarlanerako aukerak eskainiko ditu, horien artean aipagarrienak:


- eLiburutegiaren diseinu egokitzaila (Responsive Design). Horren bidez, gailu ezberdinen bitartez web plataformara sartzeko egokitzapen zuzena lortzen da.
- Balorazio sistema bat integratzea haztapen izarren bidez.

- Plataformako erabiltzaileen arteko komunikaziorako eta elkarrizketarako sistema bat integratzea. Hori iruzkin kudeatzaile batean oinarrituko da.
- Interakzioa sare sozialekin irakurketei buruzko iruzkinak eta liburuen gomendioak partekatzeko asmoz.


Ondoren, 2015eko urtarriletik abendura bitarteko mailegu digitaleko zerbitzuaren garapen eta portaerari buruzko adierazle eta datu estatistikoak biltzen dira. Datu horiek eLiburutegiaren sustapenerako eta hedapenerako erreferentziatzat balioko digute, zalantzarik gabe.

## eLiburutegia zerbitzuaren urteko bilakaera 2015eko uztailan Donostia eta Bilbao sartzen dira


- “Liburutegi amaigabea” txostenean aztertutako nazioarteko liburutegien antzeko bilakaera.
- Udako hilabeteetan jarduera handiagoa.
- **Azaroa / abenduan** goranzko joera berriro ere.
- Eboluzioaren gakoetariko bat katalogoaren berrikuntza da, eta horrekin batera komunikazio ekimen oro (prentsurrekoak, komunikatuak, ekintzak sare sozialean, etab.).



## Bururutako maileguen ehuneko hilerro Katalunia eBiblion sartzen da ekainean Uztailan Donostia eta Bilbao sartzen dira eLiburutegian




## Liburutegi digitalen erabiltzaileak orotara *Autonomia erkidegoka*



- Euskadi bigarren autonomia erkidegoa da zerbitzu digitalaren erabiltzaileen kopurua kontuan hartuta.
- Katalunia ekainean sartzen da eBiblio egitasmoan.


## Maileguak Autonomia erkidegoko *Maileguak 1000 biztanleko*



- Euskadi lehenengoko erkidegoa da 1000 biztanleko mailegu kopurua kontuan hartuta.
- Kataluniak, Balearrak eta Melillak ez dute zerbitzua eskaini 2015eko 12 hilabetetan zehar.


Comunidades	Población	Prestamos
<b>Euskadi (eLiburutegia)</b>	<b>2.190.000</b>	<b>29.582</b>
La Rioja	319.000	3.301
Comunidad Foral de Navarra	641.000	6.301
Comunidad de Madrid	6.450.000	61.595
Cataluña	7.500.000	50.568
Extremadura	1.100.000	7.407
Principado de Asturias	1.062.000	7.042
Castilla y León	2.495.000	15.584
Aragón	1.325.000	7.923
Comunidad Autónoma de Ceuta	85.000	476
Castilla-La Mancha	2.079.000	11.572
Cantabria	589.000	2.839
Andalucía	8.400.000	31.809
Comunidad Valenciana	5.005.000	18.633
Galicia	2.750.000	10.204
Región de Murcia	1.467.000	4.783
Canarias	2.105.000	<b>5.277</b>
Comunidad Autónoma de Melilla	85.600	158
Illes Balears	1.125.000	643

## Digitalean irakurtzeko ohitura erkidegoen artean *Erabiltzaileak orotara biztanle kopuruko*



- Euskadi mailegu digitaleko zerbitzuaren erabileran biztanle erabiltzaileen ehunekoirik handiena duen Autonomia erkidegoa da (0,46%).
- Katalogoaren aniztasuna, liburuzainen inplikazioarekin batera, funtsezkoa da irakurketa digitalaren ohitura areagotzeko.

## Katalogoaren aniztasuna – irakurtzeko kidesan anitzak *Euskadi mailegurako izenburuen eskaintza digital handiena duen erkidegoa da*




- eLiburutegiak 10.762 izenburu eskaintzen ditu.
- Beste autonomia erkidegoetako batez besteko eskaintza 1.652 izenburutakoa da.
- Ebooken eskaintza handia izatea liburutegien mailegua sustatzeko gako nagusietariko bat da, kidesan irakurle gehiagori erantzuna ematen baitaio.

## Mailegurako lizentzia erabilgarriak


### Lizentzia bakoitzak irakurtzeko 20 mailegurako balio du

- eLiburutegiak 54.000 lizentzia inguru ditu 2.190.000 biztanleentzat.
- 1.000.000 bat baino gehiago irakurketa posible, iraungipenik gabe.




## Mailegu digital kopuru handiena duten Euskadiko Liburutegiak

### Hiru hiriburuak, lehen postuetan. "Euskadiko ilara luzea" oso aktiboa




**Mailegu kopurua 1000 biztanleko Euskadin**  
*Arrigorriaga, Eibar y Durango buruan*



eLiburutegiaren erabilean biztanle ezik, beste aldagarri batzuk


**eLiburutegian mailegu gehien egiten diren egunak**  
*Asteazkena, jarduera gehien duen eguna (12 asteko analisia: 2015eko Urria / Abendua)*

- Aste hasierak lehentasuna mantentzen du.
- Larunbata mailegu kopuru gutxienekin mantentzen da.



## eLiburutegiara sartzeko orduak


*Lehentasuna goizeko lehen orduak 12ak arte, etxerako itzulera eta lo egin aurretik*




- Analisia 2015eko urriaren 1etik abenduaren 31rako aldiari dagokio.

## eLiburutegiako 10 izenburu mailegatuenak


*10 mailegatuenen artean euskarazko 3 izenburu*



## 10 izenburu mailegatuena euskaraz



## Katalogoaren erosketa politika 10.500 titulu afinitate guztiarentzat







# HABE Liburutegia, aurkezpen bat

**H**ABE Liburutegia liburutegi espezializatu eta publikoa da. **Eleaniztasuna** du ardatz nagusi eta hizkuntzen alde didaktiko, soziologiko, psikologiko eta hezkuntzari buruzkoak jorratzen ditu, geroz eta eleaniztunagoa den gizarte baten beharrei erantzun nahian.

HABE Liburutegia Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarean dago 2012ko urriaz geroztik.

Liburutegia hiru eremu tematikotan antolatuta dago:

- **Hizkuntzalaritza Aplikatua** 20.800 ale inguru

Hizkuntzen didaktika, soziolinguistika eta psikolinguistika, eta hizkuntzek hezkuntza-sistemetan duten tokia jorratzen dituzten dokumentuen atala. Nazioarteko literatura zientifikoa jasotzen du atal honek.

- **Euskal Biblioteka** 14.400 ale inguru

Euskarazko ekoizpena biltzen duen atala: euskal literatura osoa eta, horrez gain, jakintza-gai guztietan euskaraz argitaratutako gehientxoena. Edozein jakintza-arlo euskaraz landu nahi duenarentzat materialak eskura jartzea da atal honen xedea.

- **Material Didaktikoa** 7.200 ale inguru

Hizkuntzak ikasteko eta irakasteko metodo eta materialak biltzen dituen atala. Modu sakonean euskara ikasteko eta irakastekoak, baina baita hiztun asko dituzten hizkuntzak ikastekoak (ingeleza, frantsesa, gaztelania, arabiera, alemana, txinera, japoniera, hindiera...), zein hizkuntza txikiagoetara hurbiltzeko materialak ere (katalana, galiziera, eskoziera, errumaniera, kroaziera, suediera...).

Erabiltzaileen behar eta lan-molde berriei erantzun nahian, HABE Liburutegian azken urteotan lehenetsi dugun helburu nagusia izan da, teknologia berriak erabiliz eta biblioteken sareetan parte hartuz, **presentziakoa ez den erabilera** bultzatzea, hau da, Liburutegira gerturatu gabe Liburutegiaren zerbitzuak jasotzea.

## 1. Liburutegi sareak

Sareetan parte hartzeak ahalbidetzen du, alde batetik, gure funtsa besteen esku jartzea eta, bestetik, gure erabiltzaileen eskariei egoki erantzun ahal izatea. HABE Liburutegiaren konpromisoa da bere alorreko edozein dokumentu erabiltzaileen zat eskuragarri jartzea, **dokumentua guk eduki ala ez**.

HABE Liburutegiak sare hauetan hartzen du parte:

- EIPS.
- REBIUN. <http://catalogo.rebiun.org/rebiun/>
- Dialnet. <http://dialnet.unirioja.es/>
- WorldCat (ILL Interlibrary loan zerbitzua barne). <https://www.worldcat.org/>

## 2. Zerbitzuak

Liburutegira bertaratuta jaso daitezkeen zerbitzuez gain (mailegua, erreprografia, irakurgela...), liburutegira etorri gabe jaso daitezkeen zerbitzuak ere eskaintzen ditugu, eta horiek landu ditugu bereziki azken urteotan.

- LAM. Sareko liburutegiekin, naiz Rebiun eta WorldCat sareetan.
- Alertak. Zerbitzu honen bidez, liburutegia harpidetuta dagoen aldizkari zientifikoen (127, asko eta asko, formatu elektronikoan) azken aleen alertak (aurkibideak, alegia) e-postaz jasotzeko aukera ematen zaie sareko erabiltzaileei; eta jasotako aurkibide horietan intereseko artikulurik topatuz gero, artikularen pdfa jaso daiteke.

## 3. Liburutegia Interneten

HABE Liburutegiak informazioa eta zerbitzuak eskaintzen ditu Interneten toki hauetan:

**Webgunea.** <http://www.ikasbil.eus/web/liburutegia/home>. Bertan aurki daiteke liburutegiari buruzko informazioa, liburu-berrien zerrenda eguneratua, aldizkari elektronikoaren zerrenda...

**Bloga.** <http://liburutegiak.blog.euskadi.eus/habe/> Material didaktikoko sailari lotutako informazioa jasotzeko: nobedadeak, hizkuntzak ikasteko baliabideak, baita Interneten dauden baliabideen zerrendak ere (Diigo).

**Twitter.** <https://twitter.com/HabeLiburutegia> Liburutegiaren inguruko berriak, liburu eta artikulur berriei buruzko informazioa, blogean egiten diren sarrerei buruzkoa eta bestelako notiziak.

**Pinterest.** <https://es.pinterest.com/habeliburutegia/>

**HABE Liburutegia** Vitoria-Gasteiz, 3-4. 20018 Donostia-San Sebastián. 943-022602 / 943-022604

*Oihane Oliveri/ Imanol Irizar  
(HABE Liburutegia)*



*Itxas Ondo tabernako Bego Aguayo bere mikroliburutegi "iraunkorreakin"*

## Bakio: liburuak tabernaz taberna

**L**iburutegi hedapeneko jarduerak hainbat formatan eta hainbat espaziotan burutzen dira. Bakio aipatutako jardueraren horien adibide egokia da, eta gainera 0 kostuarekin. Egundoko hondartza eta txakolina egiteko mikroklima duen herri horrek 2600 biztanle ditu. Udan kopuru hori boskoiztu egiten da eta zerbitzu eskaera aldetik hiriburu baten pareko bihurtzen da.

Garai baten bista ederrak zituen hondartza-liburutegia antolatu zen. Hala ere, garaiak aldatu dira, ez ordea irakurtzeko behar hori. Horrela erronka berria sortu zen eta gure galdera honakoa zen: nora hurbiltzen gara normalean gure aisiarako tartetan? "Tabernetara" izan zen erantzuna.

Hori abiapuntutzat hartuta, tabernetako jabeen atentzioa gureganatzen saiatu ginen etorkizuneko mikroliburutegi horiek beren negozioei eskaintzen zieten balio erantsia azalduz.

Helburu hori lortze aldera liburutegiak hiru tresna ditu:

1. Liburutegiak, iraunkortasunaren alde, GKE batekin duen akordioaren bidez dohaintzen gordailu bat du. Era berean, apalategietatik "erretiratuta" dauden fikziozko bilduma bat sortzen du, irakurtzeko moduan dagoena oraindik ere. Horiei "astindu" bat ematea erabaki genuen.
2. Bakioko egitura urbanistikoak liburutegia udalerraren erdian kokatzen du, eskolaren eta udaletxearen ondoan baina aisia biltzen den lekuetatik urrun: tabernetatik urrun, alegia. Gehienak hondartzaren parean daude.
3. Mikroliburutegi horietara egiten diren "maileguak" kontrolatzen dituen kudeaketa programa.

Aste Santutik aurrera biblioautoak -hau da, liburuzainaren autoak- mikroliburutegi-kutxen banaketa burutzen du. Horiek,

erabiltzaileek betetzen dituzten mailegu fitxak eta bildumak osatzen dituzte. Horrela, edaria ordaintzen da eta mailegua eskatzen da aldi berean.

Parte hartzen duten tabernen kopurua aldakorra da. Askotan profesionalak ez dira ausartzen "mikroliburutegia" kudeatzen lan-karga handia baitute. Beste batzuk, aldiz, mikroliburutegi iraunkorra jartzea eskatu dute, zeinetan beren liburuak eta bezeroen liburuak jarri dituzten.

Gorputz eta arimarentzako elikagaia: pintxoa, tragoxka eta liburu... Mikrosare bat bestearen barruan. Modu horretan liburutegiko bazkide berriak lortu ditugu. Zerbitzuaren ordutegia ere luzatu egiten da. Eta, gainera, irakurketa jolas-jarduerara atsegingarri gisa sustatzen da herriak dituen ostalaritzako azpiegituren erabileraren bitartez. Izan ere, liburutegiaren zereginetako bat hori sustatzea ere bada.

*Maria Santisteban (Biblioteca de Bakio)*




## Liburutegi amaigabea

**T**xosten honek munduko liburutegietako mailegu digitaleko plataformak nagusiak aztertzen ditu, baita erabiltzen diren lizentzia-motak eta eduki eta zerbitzu motei dagokienez nagusi diren joerak ere.

Arrakasta izateko gakoak eta alderdiak identifikatu dira, liburutegiko arduradunei mailegu digitaleko proiektu bat abiarazterakoan kontuan hartu behar dituzten alderdiak zehazten laguntzeko. Gainera, liburutegietako espazio fisikoei ematen zaizkien erabilera berriei buruzko adibideak eta joera garrantzitsuenak azaltzen dira, teknologia gure eguneroko bizimoduan barneratu dugun garai honetan.

Liburutegi amaigabea Epub deskargatzeko sartu eLiburutegian: <http://www.eliburutegia.euskadi.eus/ver?libro=10280>

## Bertako funtsaren digitalizazioaren garrantzia



*“Idazle guztiek dute legezko eskubidea kobratzeko eta beren liburuetatik bizitzeko. Baina, aldi berean, exijitzeko liburuok irakurlearen eskura egon daitezela, irakurle guztien eskura. Kultura zerbait familiarra bihurtzean datza; liburuak ez ezik, idazten dituztenak ere bai ”* <sup>1</sup>

**A** Horrela definitzen zuten Ramiro Pinilla eta J. J. Rapha Bilbao idazleek 1978an, Libropueblo beren argitaletxea. Internet ez zen sartzen beren planteamenduetan, ezta hurrik eman ere! Baina kulturaren demokratizaziorako izpiritua da Getxoko Udal Liburutegiak bultzatu dituen bertako funtsaren digitalizazioa egitera.

Digitalizatzea ez da soilik formatu fisikoan dauden eduki kulturalak formatu digitalera pasatzea, ezta erabiltzaileen eskuetatik urrun dokumentu fisikoak gordetzea ere. Gure ikuspuntutik, egoera hauek benetan digitalizazioaren ondorio baino ez dira, baina ezin dira hartu kausa edo arrazoitzat.

Digitalizazioaren helburua askoz haratago doa. Bere helburua da sarbidea erraztea gure liburutegietako eduki kultural eta informazio orotarako, arrazoi ezberdinengatik zaila edo ezinezkoa egiten zaien herritar guztiei.

Gure bertoko funtsa, bere erdigunea San Nikolaseko liburute-

<sup>1</sup> “Libropueblo, una iniciativa editorial vasca para abaratar la literatura”. EL PAÍS. 13 de abril. [http://elpais.com/diario/1979/04/13/cultura/292802407\\_850215.html](http://elpais.com/diario/1979/04/13/cultura/292802407_850215.html)

## LAM Zerbitzua goraka doa etengabe



**U** Urtez-urte Euskadiko Irakurketa Publikoko Sareko (EIPS) datu estatistikoak aztertu ondoren argi eta garbi ikusten da Liburutegien arteko mailegua (LAM) goraka doan zerbitzua dela. Aurreko ekitaldian 2014an baino 6.000 mailegu gehiago egin ziren horren bitartez. Horrela, 80.603tik 86.421 mailegura pasatu gara aurtengo ekitaldian.

Bere aldetik, sarean alta eman duten erabiltzaileen kopuruak ere gorakada izan du. 2014an 26.594 pertsonen izena eman bazuten ere, 2015ean 27.721 izan dira EIPSeko zerbitzuak erabiltzeko pausoa eman dutenak.

Horren ondorioz, orotara, 596.026 erabiltzaile dira geroz eta handiagoa den sarea osatzen dutenak.

OPACaren kontsultei dagokionez, beherakada adierazgarria pairatu dute: aurreko ekitaldian 1.636.044 izan baziren oraingoan 1.360.569 izan dira erabiltzaileek egindako bilaketak.

Bestalde, 1.320 ale gehiagori alta eman zaie. Orotara, 179.340 izan dira 2015ean gehitutakoak, eta ondorioz EIPSeko katalogoaren funtsak 4,5 milioi gaintzen ditu jada, 4.554.248 hain zuzen ere.

Era berean, 21.241 izenburu berri erantsi dira. Beraz, gaur egun, katalogoak orotara 695.409 izenburu ditu.

Mailegu kopurua ere gutxitu egin da, aurreko urteko jaitziera mantenduz. 2014an 1.834.394 egin ziren eta 2015ean berriz, 1.801.728.

Gauzak horrela, datu estatistikoak lortzeko oinarritzen garen adierazle batzuetan beheranzko joera ageri da. Horrek, hausnarketa sakonago bat egitera behartzen gaitu hurrengo ekitaldian emaitza hobekoak lortzeko asmoz.

gian duena, hainbat euskarritan dauden dokumentuz osatuta dago, horietan Getxoko udalerriko zenbait kontu jorrazten dira, bai udalerriko bertako gaiak tratatzen direlako bai Getxoko egileek idatziak direlako.

2015ean Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritzak

Liburuklik, Euskal Liburutegi Digitala, proiektuan parte hartzeko aukera eman zigun, gaur egun dagoeneko errealitate dena, beste euskal erakunde eta administrazio batzuen laguntzari esker.



Proiektu honetarako lehen pausua izan zen Liburukliken sartu nahi genituen liburuak aukeratzea, beren garrantzia edota interesa kontuan hartuta, aldi berean bermatuz guztiontzako sarbidea eta behar bezala gordetzea.

Digitalizaziorako lehentasunak ezartzeko jarraitu diren irizpideak izan dira, alde batetik, gure udalerrirako interes berezia duten argitalpen guztiak barne hartzea, **Galea** aldizkaria kasu; eta beste aldetik, Getxoko Kultur Etxeak zein Udalak argitaratutako liburu eta material guztiak gordetzea.

Horrela, Getxoko material guztia digitalizatzen da zabalteko eta babesteko, baina beti egileen eskubideak errespetatuz.

Gaur egun bilduma digitala 99 lan digitalizatuz osatuta dago; hau da, 21.673 irudi.

Gure asmoa izan da eta da Getxoko ekoizpen bibliografikoari buruzko bilduma bat sortzea; erreferentzia-iturria izango da, ondo gordeko du eta bai gizartearen eta bai zientzialarien esku jarriko du aipatutako funtsa, gure udalerriko historia, ohiturak eta berezitasunak ikertzeko eta ikasteko helburuaz.

Uste dugu Getxoko bertoko funtsa digitalizatzea oinarriko pausua izango dela gure kulturaren ikerketa sustatzeko, guztion esku jarritz gure ondarea eta gure herentzia gordetzea eta babestea bermatuz. Gaur egun, gure funtsa Liburukliken kontsulta daiteke, baina laster Europeanan zehar ere izango duzu eskura.

*Susana Barreiro (Getxoko Liburutegia)*



*Biblioteca pública: mientras llega el futuro*  
Fernando Juárez-Urquijo

## Liburutegia ahalbideekin ahaldunduz

**A**ldaketen garaia baino garaien aldaketa bizitzen ari gara esan ohi da. Produktuak ekoiztu eta kontsumitu oinarri duen gizarte industrial batetik, informazioa ardatz duen beste batera igarotzen gaude eta horrek ere badu eraginik liburutegietan. Liburuak produktutik irakurketa zerbitzura doan aldaketan murgilduta gaude.

Produktua eskaintzetik esperientzia eskaintzera igaro gara eta hori dela eta, liburuak zaindu eta funtsak garatzearen gainetik, lehenetsua erabiltzaileei eman geniezaiekeen tratuan datza. Hau da, edukiez gain, liburutegira datozkigun erabiltzaileak egoki artatzea izan beharko genuke buruan. David Lankes liburuzain estatubatuarrek labur eta argi finkatu zuen ardura berria honako meme honetan: «Liburutegi kaskarrek bildumak eraikitzen dituzte, onek zerbitzuak eta bikainek komunitateak».

Ikuspuntu horretatik abiatuta, esperientziak erakargarri bihurtu beharko genituzke erabiltzaileen eskeinitako zerbitzuen onarpena baita zerbitzu horiei balorea erantsiko dion aldagaia. Liburutegia, irakurtzeko eta informazioa modu aske eta demokratiko batean lortzeko moduko espazio publiko modura aldarrikatu behar genuke, beharrezkoa balitz orokortutako iruditeriaren 'jakinduria eta isiltasunaren tenplu' imajinatik aldenduz. Liburutegiak nahiko ondo baloratuta badaude ere (nahiz eta etortze-datuak eskastuz joan. Sarri bisitatuko ez dituen natur-parkeen antzera, jendeak onuragarri deritza espazio publikoak mantendu eta sustatzea) zaharkituta geratu direla eta erabiltzaileek informazioa beste modu errazago batetik lor dezaketeela zabaldu daiteke eta erraza litzateke asmatzea pentsamolde horretatik ondorioztatu litezkeen 'gastuen' murrizketak. Nahita bilatzen ez ditugun imajinario horiek arriskutsuak izan daitezke eta gure esku legoke beraietatik aldentzeko liburutegiaren papera ahalduntzea.

Eta prozesu horretan lagundu nahi digu Muskizko liburutegian jarduten duen Fernando Juárez-Urquijok, eskura ditugun ahalbideak ikuspegi 'bibliotekario' baten pean argituz bide horretan lagun gaitzaten. 'Crus del Gorbea' baino ezagunagoak ditugu bere gaseosazko esperimentuak baina ez du haietatik lar tiratzen eman nahi dizkigun azalpenak erakusteko. Jakin badaki teknologikontuetara dagokionean zorabiatzeko moduko abiaduran sartzen direla aldaketak eta ez ditu helburuak tresnekin nahastu nahi.

Bai badarabil esperimenez aparte ezaugarri duen tonu hurbil eta lagunkoia. Liburutegi txikiotan gabiltzanoi ezinezkoa egingo zaigu liburuan zehar aletzen dituen erabiltzaileen pasadizoak gure erakusmahaietan ez irudikatzea. Edonon txakurrak ortozik. Erabiltzaileekin lankidetzaharremanak ireki eta sendotu ditza-gun gorazarre dugu liburuak.

Ezinbesteko irakurketa nahieratik izaterara, ahaleratik indikatibora igarotzeko erronka bere gain hartu nahi duten liburuzaintzat.

*Ibon Idoiaga (Leioako Liburutegia)*

## Helduak

## Haurrak

### Gaztelania : Irakurrienak

1. Ofrenda a la tormenta/ Dolores Redondo
2. El guardián invisible/ Dolores Redondo
3. Legado en los huesos/ Dolores Redondo

1. Mala suerte/ Kinney, Jeff
2. Buscando plan/ Kinney, Jeff
3. ¡Esto es el colmo! / Kinney, Jeff

### Gaztelania : Ikusienak

1. Ocho apellidos vascos
2. La isla mínima
3. Juego de tronos

1. Los Pitufos
2. Frozen: El Reino del Hielo
3. Brave

### Gaztelania : Entzunenak

1. Vaughan intensive english
2. Clásicos de nuestro
3. EGB. volumen 2: la música de una generación

1. Violetta
2. (Beck, Christophe (1972-) Frozen: el reino del hielo (BSO)
3. La Voz Kids: lo mejor

### Euskara : Irakurrienak

1. Arian 1: euskara
2. Harrian/ Alberto Ladrón Arana
3. Zaindari ikusezina/ Dolores Redondo

1. Txomin ospitalean/ Liesbet Slegers
2. Txomin ilea mozten/ Liesbet Slegers
3. Txomin eskolan/ Liesbet Slegers

### Euskara : Ikusienak

1. Urte berri on amona!
2. 80 egunean
3. Kutsidazu bidea, Ixabel

1. Sentitu, pentsatu, ekin!/ Pirritx, Porrotx
2. Zazpikoloroa/ Pirritx, Porrotx
3. Bizipoza/ Pirritx, Porrotx

### Euskara : Entzunenak

1. Denbora da poligrafo bakarra/ Berri Txarrak
2. Euritan dantzan/ Gatibu
3. Lurrean etzanda/ Ruper Ordorika

1. Txo, Mikmak txikia/ Pirritx, Porrotx
2. Bizipoza/ Pirritx, Porrotx
3. Sentitu, pentsatu, ekin! / Pirritx, Porrotx